

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD  
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

# PROBA OROKORRA

2013ko PROBA



**EUSKARA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45  
URTETIK GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**EUSKARA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2013

**EUSKARA**

---

## Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu.

Galdera bakoitzaren bukaeran adierazten da zenbat balio duen.

### **Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.**

Bizitzaren zebrabideetatik ibiltzeko agintzen diguten berak nonahitik ibiltzen dira, lasterbideak baliatzen dituzte. Ikasleari irakurketaren onurak predikatzen dizkion irakasle horixe ez duzu sekula ikusiko bere asignaturakoa ez den liburu baten aurrean. Alkohola kaltegarria dela eta asko edateak hondamen handienak dakartzala esan dio aitak semeari, kopatxoari tragotxoa eman eta gero. Sutu egiten zaituzte ustelkeria kasuek, baina zenbat aldiz ordaindu duzu BEZik gabeko faktura bat, zenbat aldiz egin diozu izkin ogasunak kontrolatuko ez dizun dirutxoren bati?

Diskurtsoek ez bezalako egiatasuna dute egintzek, predikatzen duguna ez dator beti bat praktikatzeko dugunarekin.

Euskarari buruzko gure diskurtsoek gure egintzen egiarekin egiten dute talka. Eta seme-alabek imitatu egiten gaituzte: "Ikasle gehienak euskaraz aritzen dira gelan, baina gaztelaniaz patioan", irakurri genuen joan den asteburuan.

### **OHARRAK (Post scriptum)**

Haurren gela (euskaraz egiten duten espazioa) gure *euskaldun irudia* jokatzen den esparrua da, diskurtsoa. Haurren patioa, berriz, gure hipokresia alboratu eta biluzik ageri garen espazioa (errealitatea).

**Anjel Lertxundi**



**GALDERAK**

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu (igorlea, hartzailea, erabilera-eremua, testu-tipoa, testu-generoa ...) eta arrazoitu zeure erantzuna. **(2 puntu)**
  
2. Zein da igorlearen asmoa? **(0,5 puntu)**
  - a) Gizartean gero eta maizago gertatzen diren ustelkeria kasuak salatzea.
  - b) Irakurleei informazioa ematea gizartean gertatzen ari denari buruz.
  - c) Gai baten inguruko gogoeta egitea eta iritzia ematea.
  
3. Aukeratu izenburu egokia. Hauetako zeinekin dator guztiz bat testua? **(0,5 puntu)**
  - a) Ustelkeria nagusi
  - b) Zurikeria
  - c) Euskara gelan baino ez
  - d) Post Scriptum
  
4. Testua lau paragrafoan antolatuta dago. Hurrengo taulan adierazi paragrafo horietako bakoitzaren gai nagusia esaldi labur edo hitz baten bidez. **(1,5 puntu)**

Paragrafoa	Gai nagusia
1. paragrafoa	
2. paragrafoa	
3. paragrafoa	
4. paragrafoa	

5. Zein da idazleak transmititu nahi duen ideia nagusia? Zein esaldik laburbilduko luke? **(0,5 puntu)**
  - a) Egintzek ez dute egia esaten.
  - b) Euskara gelan baino ez da egiten.
  - c) Ustelkeria kasuek sumindura handiagoa sorrarazi beharko lukete gure gizartean.
  - d) Zurikeria da nagusi gure gizartean; Esaten duguna eta egiten duguna ez datoz bat, are gehiago euskararen kasuan.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45  
URTETIK GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**EUSKARA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2013

**EUSKARA**

6. Esan testuko espresio hauek zer esan nahi duten testuinguru horretan edo eman sinonimo bat. **(1,5 puntu)**

Espresioa/hitzak	Esanahia
lasterbideak	
Talka egin	
Izkin egin	
Predikatzen	
Post scriptum	
Ogasuna	

7. Berridatzi esaldi hauek parentesian ematen diren hitzak eta egiturak erabiliz **(1,5 puntu)**

Ikasleari irakurketaren onurak predikatzen dizkion irakasle horixe ez duzu sekula ikusiko bere asignaturakoa ez den liburu baten aurrean. (arren)

\_\_\_\_\_

Diskurtsoek ez bezalako egitasuna dute egintzek, predikatzen duguna ez dator beti bat praktikatzen dugunarekin (bat egin)

\_\_\_\_\_

Alkohola kaltegarria dela eta asko edateak hondamen handienak dakartzala esan dio aitak semeari, kopatxoari tragotxoa eman eta gero (-takoan/-dakoan)

\_\_\_\_\_

8. Testuan bada, gutxienez, metafora bat. Bilatu eta azaldu beraren esanahia **(1 puntu)**

9. *Euskaldun irudia* dio idazleak. Zer esan nahi du? **(1 puntu)**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45  
URTETIK GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**EUSKARA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2013

**EUSKARA**

## **PROBAREN ERANTZUNAK EUSKARA (2013ko maiatza)**

### **GALDERAK**

#### **1. 2 puntu**

Erabilera eremuari dagokionez, komunikabideetako esparruan koka daiteke, informazio orokorreko egunkari edo aldizkari batean argitaratutako testua da honakoa, irakurle orori begira planteatuta. Testu tipoari dagokionez, argudiozkoa da eta testu generoa, iritzi artikulua. Idazleak, Andu Lertxundi, bere gogoetak eta iritziak plazaratzen ditu gai baten inguruan eta irakurleengan eragitea du helbururik behinena.

Ez dago zuzenduta irakurleko espezifiko bati, baizik eta publiko orokorrari, gizarte osoari. Hautatu dituen hitzak eta esapideak hizkuntza estandarrean eta publiko zabalak, edozein irakurlek erraz uler ditzaketenak dira.

#### **2. 0,5 puntu**

c) Gai baten inguruko gogoeta egitea eta iritzia ematea

#### **3. 0,5 puntu**

a) Zurikeria

#### **4. 1,5 puntu**

<b>Paragrafoa</b>	<b>Gai nagusia</b>
1. paragrafoa	<i>Gure inguruan, nonahi, makina bat ustelkeria, agintariak eta baita guk ere iruzur egiten dugu.</i>
2. paragrafoa	<i>Denok ez dugu egiten esaten duguna.</i>
3. paragrafoa	<i>Euskarari dagokionez, eskolan ere modu berean jarduten da. Egiten duguna ez da esaten duguna.</i>
4. paragrafoa	<i>Gizartean ere zurikeriaz jarduten dugu euskarari dagokionez, diskurtsoak eta egintzak ez datoz bat.</i>



**5. 1,5 puntu**

Espresioa	Esanahia
lasterbideak	<i>Toki batetik beste batera joateko, ohiko bidea baino lasterragoa den bide-zidorra. Hemen zentzu metaforikoaz erabiltzen da, bidezidorrak, baina debekatutako bideak, lehenago heltzeko, gehiago irabazteko eta guztiz legala ez bada ere helburua erdiesteko hartzen diren bide horiek dira.</i>
Talka egin	<i>Gorputz batek beste baten aurka jo; bi gorputzek elkarren aurka jo. Kolpatu, jo, zarata atereaz, guztiz konforme egon ez</i> <i>Buruz elkarri kolpeak eman. (animalien buruek).</i>
Izkin egin	<i>Ihes egin, itzuri.</i> <i>Zentzu metaforikoa du, tranpa egin, saihestu.</i>
Post scriptum	<i>Testua idatzi eta gero gehitutako oharra. Ohar garrantzitsua baina, testuko ideia bat argitzera datorrena</i>
Ogasuna	<i>Hazienda (Erakundea); gure zergak biltzen dituen erakundea.</i>
Predikatzen	<i>Esaten baina abadeek bezala hartzailea konbentzitu nahian. Sermoia egin. Oso esanahi markatua du.</i>

**6. 0,5 puntu**

a) Zurikeria da nagusi gure gizartean; Esaten duguna eta egiten duguna ez datoz bat, are gehiago euskararen kasuan.

**7. 1,5 puntu**

Ikasleari irakurketaren onurak predikatzen dizkion irakasle horixe ez duzu sekula ikusiko bere asignaturakoa ez den liburu baten aurrean. (arren)

Ikasleari irakurketaren onurak **predikatzen dizkion arren (predikatu arren)** irakasle horixe ez duzu sekula ikusiko bere asignaturakoa ez den liburu baten aurrean



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45  
URTEK GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**EUSKARA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2013

**EUSKARA**

Diskurtsoek ez bezalako egiatasuna dute egintzek, predikatzen duguna ez dator beti bat praktikatzen dugunarekin (bat egin)

Diskurtsoek ez bezalako egiatasuna dute egintzek; **predikatzen dugunak ez du bat egiten** praktikatzen dugunarekin

Alkohola kaltegarria dela eta asko edateak hondamen handienak dakartzala esan dio aitak semeari, kopatxoari tragotxoa eman eta gero (-takoan/-dakoan)

**Kopatxoari tragotxoa emandakoan**, alkohola kaltegarria dela eta asko edateak hondamen handienak dakartzala esan dio aitak semeari.

### 8. 1 puntu

Bi aipatu daitezke. Horietako bat, edozeinek, balio dezake honakoa erantzuteko **Bizitzaren zebrabideetatik**

(zebrabidea leku segurua, baimendutakoa, legez onartutakoa da, baina boterea dutenek, berriz, komenientziaren arabera, euren interesen arabera, bide laburragoa malkartsuagoa eta ez hain segurua, baina bai ordea, azkarra eta ez guztiz legala (**lasterbideak**) hartzen dute.

### 9. 1 puntu

Hipokresia eta zurikeria gai nagusi duen testu honetan euskararekin gertatzen ari dena aipatzen du idazleak, eskolan eta ikastetxeetan euskara landu eta euskaraz bizi garela egiten dugu baina errealitatea, patioa, gizartea eta kalea bestelakoa da, halakoak garela ematen dugu, ez besterik.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45  
URTETIK GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**EUSKARA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2013

**EUSKARA**

**GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN  
ARTEKO HARREMANA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA ADIERAZLEAK</b>
1	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak eta horien formatua antzematea.
2	3.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
3	3.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
4	2.5. testu baten ideiak laburtzea
5	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri hizkuntzakoak (lexikoak), antzematea.
6	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak, eta horien formatua antzematea.
7	3.3. Multzo honen berezko testuetan gizarte bizitzarako eta bizitza akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea
8	3.3. Multzo honen berezko testuetan gizarte bizitzarako eta bizitza akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea
9	3.3. Multzo honen berezko testuetan gizarte bizitzarako eta bizitza akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.